



beste barik, errealidadea eraldatzeko



**Kultura askea: alkarteari on egiten deutsan
ondasun publikoa**

Kultura askea: alkarteari on egiten deutsan ondasun publikoa

mezu
kateatuak

GOGOETA

Askorentzat, kultura askea, egintza kultural eta artistikoari ezarritako Software askearen filosofiaren hedadura logikoa da. "Kultura askea" terminoa berez, jatorrian, softwarerako ez ezik artelanetarako egokiagoa zan berriazko lizentzia be sortu eban Lawrence Lessigek 2004ean argitaratu eban liburuaren izenburua zan.

Kultura askearen mobimentua, ikus-entzunezkoek kulturaren ezartzen diharduen blokeo barik (egile-eskubideak, 'erabilera zuzenerako eskubideak' kentzeko saiakerak, e.a.), kulturaren ekoizpen eta zabalkunderako erak berraztertuz, beste batzuei askatasunez erabilteko, bere egintza aztertzeko, banatzeko eta hobetzeko baimena emonez, askatasunaren mesedetan gizarterako lantaldea eratzen daben gizabanako eta erakundeen taldetaz hartu daiteke.

Kultura askeak sortzaile eta barritzaileak babestu egiten ditu. Zuzenean egiten dau, jabetza intelektualerako eskubideak emonez. Eta eskubide honeen eskuratzea mugatuz be egiten dau, beste sortzaile eta barritzaile batzuk be ahalik eta askeen izan daitezkan kontrolean iraganari jagokonez. Kultura askearen kontrakoa, «baimenaren kultura» da –sortzaileei ahaltsuen edo iraganeko sortzaileen baimenagaz sortzeko aukerea baino emoten ez deutsen kultura.

Kultura askea artelan hutsetik haratago doa, barruan hartzen dau jakintza librea deitzen dana be, jakintza, alkarte osoari on egiten deutsan eta bardintasunezko garapena ahalbideratzen dauan ondasun publikotzat hartuta. Hogeta bost milioi lagun baino gehiagok daukie HIESa Saharako hegoaldean. Kutsatutakoen bizi-kalidatea hobetzen daben botiken prezioa garestiegia da herrialdeotako biztanleentzat. Eta botikak ez dira garestiak osagaiak garestiak diralako, botika horreek patenteek babesten dabezalako baino.

Aitatu dogun askatasun horren definizino osoa aurkitzeko, nahikoa

<http://freedomdefined.org/Definition/Es> web orrialdera jotea; honan laburtzen da:

erabilteko askatasuna, ikasteko askatasuna, kopiak egiteko eta banatzeko askatasuna eta aldaketak eta hobekuntzak egiteko askatasuna.

egintza

Jakin gauza gehiago kultura askeari buruz (adibide batzuk):

barriak: egunkari diagonalak; musika: Kerobia lako taldeak, Robo

Fundazioa lako egitasmoak; liburuak: ametsen trafikatzailak,

bookcamping; software askea: ipini erabilten dozun programaren baten alternatiba askea (<http://www.cdlibre.org>, <http://freealts.com/>).

Babestu artista eta egitasmoak. Zeure denporea eskaini: itzulpenak eginez, zure ekarpena konpartituz; edo dirua –"aske" izatea ez da nahitaez "doakoa" izatea, argialetxeetan, finantzaketa-sistema kolektiboetan hau da, crowdfunding' deitutakoetan, esate baterako <http://goteo.org>- dalakoan (kontuz, 'crowdfunding' egitasmo guztiak ez diralako kultura askekoak) harpidetuz; ekimenak ezagutu eta babestu: funtsezko botikak eskuratzeko kanpaina (CAME) (<http://msfaccess.com>) edo Free Software Foundation (FSF) dalakoaren kanpainak (<http://www.fsf.org/campaigns>); ikasi on line baliabideei buru, kultura askako lanak aurkitzeko eta zeure egitasmoetan erabilteko.

Ikertu egitasmo desbardinaren inguruan, esate baterako: botika-industria indiarak, NASA, Wikipedia, software askea (bazenian Europan aplikazioen kode osoaren %35a berrerrabiltako software askea dana?) (<http://www.cenatic.es>)